



UNIBASQ - EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2016ko UZTAILAREN 13ko BILERAREN AKORDIOEN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea, presidentea
Adolfo Morais jauna,
presidenteordea

Eva Ferreira andrea, Agentziako
zuzendaria

Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea

José María Guibert jauna, Deustuko
Unibertsitateko errektorea

Vicente Atxa jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea

Esther Dominguez andrea

Enrique Amezua jauna

Fermín Garmendia jauna

Esther Gimenez-Salinas andrea

Guy Haug jauna

José Luis Iriarte jauna

Iker Martín jauna

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

Pauli Dávila jauna.

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 85, A aretoa, 48013 Bilbo), 2016ko uztailaren 13ko 11:00etan bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2016ko martxoaren 14ko akta irakurri eta onartzea. **Onartu da akta.**
2. Lehendakariaren txostena.
3. Zuzendariaren txostena.
4. Unibasqeko Etika Kodea onartzea eta Etika eta Bermeen Batzordearen Araudia berrestea. **Onartzen da Kodea eta Araudia berresten da**
5. Aholku Batzordeko kideak onartzea. **Izendapenak onartzen dira**
6. AQAS agentzia alemaniarrekiko Elkarbidetza Hitzarmena onartzea **Hitzarmena onartzen da**
7. Hitzarmenak sinatzeko protokoloa onartzea. **Protokoloa onartzen da**
8. ENQA-rentzako segimendu txostena
9. Galderak eta eskaerak.

Zuzendariak gonbidatuta Aitor Zurimendi jauna, zuzendari ondokoa, dator.